

Berria.info » Euskal Herria

INGURUMENA

Beren iritzia kontuan ez hartzea egotzi diote natur taldeek Gipuzkoako Aldundiari

Lau gairen inguruan proposamenak aurkeztu dizkietela azaldu dute, eta ez dutela idatzizko erantzunik jaso. Aurreko foru gobernuarekiko politikak ez direla aldatu ohartarazi dute. Besteak beste, Berdeak, Eguzki eta Ekologistak Martxan kexatu dira.

Berria.info 2013-02-26 - 14:14:00

0 Egin iruzkina

Bozkatu ○○○○○○ Emailza ☆☆☆☆☆ Printatu Irudiak Twitter 2 Facebook 3

Gipuzkoako hamasei natur talde amaitutzat eman dute duela urte eta erdi Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hasitako elkarrizketa saioa. Azaldu dute hainbat gairen inguruan egin dizkietela proposamenak. "Baina aldundiak isilik jarraitzen du. Ateak itxita dauzka guretzat. Agintari berriak izanagatik, aurrekoen ildo beretik jarraitzen dute".

▪ **Iritzia.** Natur kontserbazioa Gipuzkoan (Aitziber Sarobe Egiguren)

Besteak beste, ondorengo gaien inguruan aurkeztu zizkieten proposamenak: basoetarako laguntzak, basoen kudeaketa, ehiza eta bioaniztasuna. "Azken gai horren inguruan ez digute ezta biltzeko aukerarik ere eman", nabarmendu dute. Hori ikusirik, eskari argia egin diote: herritarren hitza kontuan hartzea.

Orotara, hamasei talde kexatu dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarreraz: Berdeak, Ekologistak Martxan, Eguzki, Erkaxo Azpeitiko Natur Taldea, Haritzalde, Itsas Enara Ornitologia Elkartea, Landarlan Natur Elkartea, Mutriku Natur Taldea, Okil Beltzak Natur Taldea, Ondarroa 12 milia, Arkamurka Natur Elkartea, Herrio Natur Taldea, Zumaia Natur Taldea, Katamarrua Zestoako Natur Taldea, Ugatza Ornitologia Elkartea eta Osina Natur Taldea.

Larraitz Ugartek, Gipuzkoako Foru Aldudiko bozeramaileak, adierazi du "zentzuzkoak" izan daitezkeela talde horien kritikak: "Haien erritmoak eta aldundiarenak diferenteak dira". Baina baikor da: "Gauza berdinetaz hitz egiten dugu, eta gure aldetik elkarlanean aritzeko prestutasun osoa dugu".

Iruzkinak

Erabiltzailea Pasahitza Hasi saioa

[Izena eman](#) Berriketan.



Elkarrizketa digitalak

Osteguna 28, 09:30



Igor Eguren
UDALBILTZAKO TALDE SUSTATZAILEKO
KIDEA

Galdera bidali »

PUBLIZTATER




asteazkenero
eskaintzak

EROSTEKO EGUNAK:
Otsailaren 20tik asteazkena
otsailaren 26ra asteartea

Gehien...

- | irakurriak | bozkatuak | bidaliak |
|------------|---|----------|
| 1 | Mikel Agirrek uko egin dio EITBko zuzendari nagusi izateko hautagaitzari | |
| 2 | Berlusconirekin akordio batera heltzea baztertu du Bersaniren aldeko koalizioak | |
| 3 | Beren iritzia kontuan ez hartzea egotzi diote natur taldeek Gipuzkoako Aldundiari | |
| 4 | Errepideen egoerak hobetzera egin du, goizeko elurtea etenda | |
| 5 | PSOEK zigortu egingo ditu erabakitzeke eskubidearen alde bozkatzen duten PSCKo diputatuak | |





Sarrerak

NAFARROAKO
BERTSOLARI TXAPELKETA
2013

Etxarri



4 sarrera

Kultur Etxea
Etxarri
Martxoak 3,
igandea

Jasotako dei guztien
artean zozketa
egingo dugu.
Saridunen izenak
otsailaren 28an
argitaratuko ditugu.

-->

SAHARAREN ALDEKO
BERTSO SAIOA



12 sarrera

Bastero
Kulturgunea
Andoain
Martxoak 3,
igandea

12:00

Jasotako dei
guztien artean
zozketa egingo
dugu.
Saridunen
izenak

otsailaren 28an

argitaratuko
ditugu.

-->



berria Facebooken



10.946

10,946 pertsonak atsegin dute berria.



Lavighju



Jorge



Igor



Jose Luis



Sortu



Jon



Eleak



Elvira



Alaitz



Iñigo

Blogak

Duela 5 minutu idatzia



NAFAR PERIFERIATIK

Bixente Serrano Izko

Mintzoen bihurrikeriak

Duela 34 minutu idatzia



EKOGRAFIAK

Aritz Galarraga

Oliba-olio birjina estra

Duela 57 minutu idatzia



SORMENAREN ATERPETIK

Iñaki Etxeberria

Txillida eta Oteiza: Hutsa eraikitzen

Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 • Faxa: 943 590 172

Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.info • Publizitatea: publi@bidera.eu •

Harpidetza: harpidetza@berria.info



Laguntzaileak:



Babesleak:

